

## RUMBEK

1. Hego Sudan? La Salle?
  - Non dago Hego Sudán? Non dago Rumbek? ([https://eu.wikipedia.org/wiki/Hego\\_Sudan](https://eu.wikipedia.org/wiki/Hego_Sudan))
  - “La Salle” munduan? <http://www.lasalle.org/donde-estamos/>
  
2. “La Salle” erakundeak hartutako erabakia.



## Mugak baino harantzago

Kalitatezko hezkuntza Hego Sudanen: Gazteentzako hezkuntza-proiektu bat

Hego Sudan Afrikako herrialde bat da, independentziara iritsi den azkena. 2011n lortu zuen burujabetza Sudanetik bananduz, 40 urtetako gerra tartean, eta banantze-prozesu baten ondoren. Esan beharra dago, ordea, independentzi 7 urte hauetatik 2 bakarrik izan dituela bakezkoak. 2013an hasi zen gerra zibila eta 2015ean gaiztotu. 2015ean hilabete batzuetan izan zuten su-etena baina ez zuen asko iraun.

Asko ez dela, 2018ko irailaren 12an, akordio berri bat sinatu dute Hego Sudaneko bi lider garrantzitsuenek, Etiopian bildurik. Akordio honek amaiera jarri beharko lioke bost urtetan milaka hildako sortu eta herrialdeko azpiegiturak desegin dituen gerra zibilari, nekazaritza-lurrak abandonatzea eta gosetea eraginik, garraio eta merkataritza-azpiegiturak eta osasun eta hezkuntzazkoak suntsituz.

Sudaneko gotzainek, beren herrialdeko biztanleen egoera tamalgarriaz kezkatuak, kongregazio erlijiosoetako erlijiosoburu orokorrei, gizonezko nahiz emakumezkoek, eskatu zieten herrialdea eta herritarren biziera berreraikitzean parte hartzea. Horrela sortu zen *Hego Sudanekiko Solidaritatea* izeneko kongregazioen arteko proiektua. Hasieratik, 2008ez geroztik, ondorengo 4 pertsona-talde hauek gaitzeari eman zaio oinarritzko lehentasuna: maisuak, osasun-profesionalak, nekazariak eta elkarte-liderrak gaitzeari.



2017an Hego Sudaneko bigarren mailako eskoletako matrikulazioa adin horretako gazteen %5 ingurukoa izan zen. Egoera honek ondorio oso kaltegarriak ditu herrialdearen etorkizunaren garapen ekonomiko eta sozialerako; horregatik dira hain gutxi Hego Sudanen gaitasuna duten eta kualifikatuak diren langileak: eraikuntzaren arloetan, ostalaritzan, negozioetan edota kontabilitatean.

Ingurune honetan, maisuak gaitze-arloan hartua duten konpromisoaz gain, **La Salleko Anaiak erabaki dute herrialdearen eraikuntzan parte hartzea baita Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe bat** abian jarri ere, Rumbek-en. Proposamena Afrika Eskualdeko Salletar Anaiengandik jaso da, haiek erabaki baitzuten abian jartzea *mugak baino harantzago* joateko ekimena. Haien konpromisoa da Ikastetxea martxan jartzeko Anaiak eta Sekularrez osatutako nazioarteko elkarte baten ekarpena egitea.

**LA SALLE IKASTETXEA RUMBEK-EN**

Rumbek hiri txiki bat da, herrialdearen erdialdean kokatua, Al Buhayrat (Lakuak) Estatuko hiriburua. Biztanle gehienak dinka etniakoak dira, abeltzaintzara emanak eskualdeko lautada zabaletan behi-zebuak bazkatzen dituztenak. Rumbek-eko hiria, herrialdeko gehientsuenak bezala, kaleak lurrezkoak ditu eta etxe baxuak eta oso hondatuak. Merkatuak, Afrikako edozein bazterretan bizitasun handikoak, hemen erdi hutsik egoten dira, ez baitute ia ezer saltzeko, ezta premia-premiazko elikagaiak ere. Rumbek hiria, nahiko baretsua izan arren, Hego Sudanen gertatzen denaren isla doia da.

Hasiak dira La Salle Ikastetxea eraikitzen landa-eremuan, artzainen herrixkez inguratutik, hiriko erdigunetik hamaikaren bat kilometrotara. Landa-eremu hau eskolatzeko eginahalak egiten ari dena Buruzagi Tradizionala da, garbi baitauka belaunaldi berrien hezkuntza dela herrialdearen eguneko egoeraren aldaketa ahalbideratuko duena. Duela 10 urte lortu zuen Loretoko Ahizpak edo Ahizpa Irlandarrak zonaldean kokatzea neskentzako Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe bat abian jartzeko. Ondoren beraien zeregina zabaltzen joan ziren Lehen Hezkuntzako Eskolarekin (mistoa) eta ama-haurrentzako Osasun Zentro batekin. Orain, hezkuntza eskaintzari La Salleko Anaiak Bigarren Hezkuntzako beste Zentro bat gehituko diote, oraingoaren osagarri izango dena, eta, aurrerago Heziketa Profesionala.



La Salle Ikastetxeak tokiko agintarien babesa du eta Loretoko Ikastetxeak urte hauetan jasotako esperientziaz baliatuko da. Bi ikastetxeek elkarrekin batera lan egitea, aurreikusita dago. Hasiera honetan, Ahizpek zenbait irakasle utzi dute eta beren Ikastetxeko ikasgela bat ere klaseak hasteko. Ikasle hauek izango dira La Salleko lehenengo ikasleak Rumbek-en eta Hego Sudanen.

**Proyde-Proega, Proyde eta beste salletar GGKErekin batera, konprometituri dago proiektuan, La Salleko san Joan Bautistaren heriotzaren Hirugarren Mendeurren urte honetan, mundu zabaleko beste salletar eskualdeekiko solidaritate berean.**

(Beste testu bat, gazteleraz: <https://www.omp.es/la-escuela-secundaria-los-hermanos-la-salle-rumbek-sudan-del-sur/>)

